

## EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

### *Euskara habil mundu guzira*

#### HITZALDIAK

##### BAKARTXO TEJERIA LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIAREN ONGI ETORRIA

Egun on eta ongi etorri Eusko Legebiltzarrera.

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna. Egun seinatu honetan, egunari zor zaion moduan, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak *Linguae Vasconum Primitiae*, euskaraz argitaratutako lehen liburuaren bertsio berria aurkeztera gatoz, munduko sei hizkuntza gehiagotara ekarria.

Orain eta hemen, bost ehun urte geroago, gogoan dugu musde Etxepare, Garaziko herrikoa, eta gogoan dugu eta izango dugu Baigorriko *haritz* handia, Jean Haritschelhar, aurten joan zaiguna baina utzi ez gaituena.

*Euskara habil mundu guzira* idatzi zuen Beñat Etxeparek bere liburuan. XXI. mende honetan euskara munduan da. Euskaldunok munduan gara, eta mundua gurean da, munduko hazietara irekirik, lau haizetara zabalik.

Zabaltasun horretaz mintzo gara liburua aurkezten dugun honetan.

##### BIENVENIDA DE LA PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO BAKARTXO TEJERIA (TRADUCCIÓN)

*Buenos días y bienvenidos al Parlamento Vasco.*

*Hoy es 3 de marzo, Día Internacional del Euskera. Y en este día tan señalado, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia vamos a presentar una nueva versión de Linguae Vasconum Primitiae, el primer libro –conocido– que se imprimió en euskera. Una nueva versión que incluye la traducción de la obra a otras seis lenguas del mundo.*

*Hoy, aquí, quinientos años más tarde, recordamos al autor del país de Garazi, a Bernard Etxepare. También tenemos presente al roble -haritza- de Baigorri, Jean Haritschelhar, que nos ha dejado pero cuya memoria siempre permanecerá entre nosotros.*

*“Euskara habil mundu guzira”, escribió Bernard Etxepare en su libro. Y en pleno siglo XXI, el euskera está en el mundo. Los euskaldunes estamos en el mundo, y el mundo forma parte de nosotros; estamos y nos queremos abiertos al mundo, a los cuatro vientos.*

*A esa apertura nos referimos en la presentación de este libro.*



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

## XABIER KINTANA

Eusko Legebiltzarreko Presidente andrea, Euskaltzainburu jauna, herri-ordezkariek, hona etorri zareten jaun-andreok, agur eta egun on guztioi.

Gaurko egunean, baina 1552 urtean, Frantses Jatsu Azpilikueta, San Frantzisko Xabier izenaz ezagunagoa, hil zen, 46 urterekin Txina aurreko Shang Chuan uhartean, hara misiolari joanda. Nafar jesuita horren azken hitzak euskaraz esan zituen, bere ama-hizkuntzan, haren agoniaren lekukoek aitortu zuten. Gertakari horretan oinarri harturik, 1995an Kanpoko Gizataldeen Lehen Mundu Batzarrean, Uruguayko Ordezkaritzaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguntzat hartzea erabaki zuten, jada 1949an Eusko Ikaskuntzak lehen aldiz nahi izan zuenen.

Eta, horregatik, egun honetan, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen denean, beste euskaldun baten oroitzapenez, Bernard Etxepareren lana aurkeztu nahi dugu, *Linguae Vasconum Primitiae*, euskaraz inprimatu zen lehenbiziko liburuaren edizio berri eta berezi bat. Horrela, Frantzisko Xabierkoa eta Bernard Etxepare, nafarrak biak, gogoratzen ditugu gaur.

Dakizuenen, Etxeparek, bere obraren azken bertsoetan, euskara goresteko, gure hizkuntza jendaurrera atera nahi zuen, etxetik kanpora, plazara, bere herritik mundu zabalera, jende guztiek ikusi, miretsi, txaloak jo eta estima zezaten. Etxepareren bidetara jarraituz, gauza bera proposatuko zuen Xabier Lizardi gipuzkoarrak ere 1932an *Bihotz-begietan* bere bertso liburuan. Hor, *Eusko Bidaztiarena* poeman, euskara, bere gogamenaren emazte platonikotzat harturik, munduan zehar ibiltzera gonbidatzen zuen, harrotasunez gainera, haren edertasuna erakusteko.

Aurreko edizioan Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak Etxepareren lana frantsesez, gaztelaniaz, ingelesez, alemanez eta italieraz eman genuen argitara, geure inguruko europar hizkuntza nagusietan alegia. Izan da, bestetik, beste itzulpen bat ere, armenieraz argitaratua. Baina oraingoan, Europako beste hiru hizkuntzaz gainera, mundurako ate-leihoak ireki eta Asia, Afrika eta Amerikako jendeengana ere hurbildu nahi izan dugu euskara, gure lehen poetaren bertsoak nori bere mintzairan eskainiz.

Izan ere, gogoan hartu behar dugu oso ugari direla aspaldiko urteotan Euskal Herrira hurbildu zaizkigun jendeak, munduko toki askotatik etorriak, gurekin bizi eta lan egitera etorriak. Beren presentziaz, ahaleginarekin eta lanarekin bertokoon etorkizuna moldatzen eta aberasten laguntzen digutelako. Hori dela eta, guk, neurri batean behintzat, beren nortasuna aintzat hartu eta estimatuz, geure kultura ere erakutsi nahi izan diegu, geure literaturaren lehen fruitua beren hizkuntzetan opatuz.



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Bistan denez, hau hasierako pauso bat besterik ez da, eta ez gara oraino guztiengana heldu. Baina espero dugu oraingo hau ez dela azken edizioa izango, eta datozen urteetan beste hizkuntza batzuen oihartzunetan ere azalduko zaigula Etxepareren mezua. Izan ere, urte batzuk geroago Cervantesek ere antzeko zerbait aldarrikatuko zuen, antzinateko klasiko hilezinak benetan imitatzeko, nork bere obrak grezieraz, latinez edo inoren hizkuntzaz barik, bakoitzak bere hizkuntzan idatzi behar zituela, norbere nazio-mintzaira landuz eta bere herrikideen harrotasunerako.

Gaur, hementxe ditugu, bestalde, edizio honetako itzulpenak egin dituzten pertsonak. Horietarik hiru, Europako mintzaira erromaniko berezi banaren jabeak dira: Manuel Gonzalez jauna, galiziarra; Joan Martí jauna, katalana, Delia Mihaela Cristea errumaniarra; Shaalan Hares Libanoko arabiarra; Fang Xiao txinatarrak eta Veronica Yuqulema andrea, Ekuadorko kitxuarra, itzultzaile izan den Maria Hilda Chaluisa andrearen ordezkoa. Beren lan bikaina eskertu eta egileak ezagutu nahi izan ditugu, ondo merezi dituzten txaloak eskaini baino lehen. Orain, guztion artean, irakurriko dugu Etxepareren kontrapasa, zeinek bere hizkuntzan.

### XABIER KINTANA (TRADUCCIÓN)

*Señora presidenta del Parlamento Vasco, señor presidente de Euskaltzaindia, representantes públicos, señoras y señoras aquí presentes, buenos días a todos.*

*Tal día como hoy, pero en el año 1552, fallecía Frantses Jatsu Azpilikueta, más conocido como san Francisco Xabier, a la edad de 46 años, en la isla Shang Chuan, frente a China, adonde había viajado como misionero. Este jesuita navarro pronunció sus últimas palabras en euskera, en su lengua materna, si nos atenemos a lo que declararon quienes fueron testigos de su agonía. Basándose en este hecho, en el Primer Congreso Mundial de Colectividades en el Exterior, celebrado en 1995, y a propuesta de la Delegación de Uruguay, el Gobierno Vasco y Euskaltzaindia acordaron adoptar el día 3 de diciembre como Día Internacional del Euskera, tal como lo había querido por primera vez la Sociedad de Estudios Vascos ya en 1949.*

*Y, por ello, en este día en que se celebra el Día Internacional del Euskera, queremos presentar, en recuerdo de otro euskaldún, la obra de Bernard Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, una edición nueva y especial del primer libro que se imprimió en euskera. De esta forma, recordamos hoy a Francisco de Xabier y a Bernard Etxepare, navarros ambos.*

*Como saben, en los últimos versos de su obra, Etxepare, con ánimo de ensalzar el euskera, quería mostrarlo a las gentes, sacarlo de casa, llevarlo a la plaza, de su*



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

*pueblo al mundo, a fin de que todos lo vieran, lo admiraran, lo aplaudieran y lo apreciaran. Siguiendo la senda de Etxepare, el guipuzcoano Xabier Lizardi propondría lo mismo, en 1932, en su libro de poemas Bihotz-begietan. En el poema Eusko Bidaztiarena de este libro, invitaba a la lengua vasca, tomándola como esposa platónica de su entendimiento, a viajar por el mundo, incluso con orgullo, para mostrar su belleza.*

*En la edición anterior, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia publicamos la obra de Etxepare en francés, castellano, inglés, alemán e italiano, es decir, en las principales lenguas europeas de nuestro entorno. Ha habido también otra traducción, publicada en armenio. En esta ocasión, abriendo nuestras puertas y ventanas al mundo, hemos querido también acercar el euskera a las gentes de Asia, África y América, ofreciendo los versos de nuestro primer poeta a cada uno en su lengua, además de hacerlo en otras tres lenguas de Europa.*

*Y es que debemos tener en cuenta que son muchas las gentes que desde años atrás han ido llegando a Euskal Herria, procedentes de muchos lugares del mundo, a vivir y a trabajar con nosotros. Porque con su presencia, esfuerzo y trabajo nos ayudan a forjar y enriquecer nuestro futuro a los que somos de aquí. Por ello, respetando y apreciando su identidad, en cierta medida al menos, hemos querido también mostrarles nuestra cultura, ofreciéndoles el primer fruto de nuestra literatura en sus respectivas lenguas.*

*Evidentemente, este no es más que un primer paso, y aún no hemos llegado a todos. Pero confiamos en que esta edición no será la última y que, en los próximos años, el mensaje de Etxepare también se hallará presente en los ecos de otras lenguas. Y es que algunos años después Cervantes también reclamaría algo parecido, es decir, que para imitar de verdad a los inmortales clásicos de la antigüedad, en lugar de escribir en griego, latín u otra lengua ajena, cada cual debía escribir sus obras en su idioma, cultivando la lengua nacional propia y para orgullo de sus conciudadanos.*

*Por otro lado, hoy se encuentran aquí, entre nosotros, los autores de las traducciones de esta edición. Tres de ellos son poseedores de lenguas románicas europeas: Manuel González, gallego; Joan Martí, catalán y Delia Mihaela Cristea, rumana; Shaalan Hares, árabe libanés; Fang Xiao, chino, y Verónica Yuqulema, quechua del Ecuador, en sustitución de la traductora María Hilda Chaluisa. Hemos querido agradecer el magnífico trabajo realizado y conocer a sus autores, antes de dedicarles los bien merecidos aplausos. Ahora, vamos a leer entre todos el Contrapás de Etxepare, cada cual en su lengua.*





EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

## ANDRES URRUTIA EUSKALTZAINBURUAREN HITZALDIA

Berriro ere datorkigu gogora Etxeparek ondutako *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), euskararen letretan ezagutzen den lehen liburu inprimatua. Aurrekoan bezalaxe, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak euren ahaleginak batu dituzte, behinolako liburu gogoangarri hori euskal irakurleei ez ezik, bestelako mintzairak dituztenei ere eskaintzeko, bakoitzak bere hizkuntzan ulertzeko modua izan dezan.

Izan ere, langintza honen bitartez, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak ezin hobeto betetzen dute Etxepare berak, duela lau mende eta erdi, azaldu zuen gogoia eta egitekoa: Euskara, jalgi hadi mundura!

Horretarako, bistan da, ezin besteko eta premiazko laguntza behar izan dute bi erakundeok euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeko Etxepareren bertsokak.

Hasian hasi, eta aurreko argitaraldian barruratu ziren hizkuntza moldeei (gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana eta italiara) oraingo honetan gehitu zaizkie galegoa eta katalana, euskararekin batera ofizialtasuna dutenak euren lurraldeetan eta orobat, Euskal Herrian azken urteetan ageriko diren beste herri batzuen hizkuntzak (errumaniera, txinera, kitxuera eta arabiera).

Mintzo zen Etxepare, duela lau mende t´erdi. Mintzatuko da egun ere, hizkuntza desberdinetan eta halaxe gertatuko da gure artean euskarazko hitzak eta bertsokak, nork gure hizkuntzan ulertuko ditugula. Honetan ere, tartean izan diren itzultzaile eta adituen lana aipatzekoa da, horiek osatu baitute halako glossolalia edo hizkuntzen dohaina, nork bere mintzairan ulertu ahal ditzan Etxepareren olerkiak.

Azpimarratu nahi dut, alabaina, bestelako eta osterantzeko ikuspegia. Euskarak bere libururik lehen-lehena eskaintzen die gaur beste hizkuntza erkidego batzuen hiztunei. Betoz gure herrira horien gogoak eta asmoak. Batzuk (errumaniarrak, txinatarrak, kitxuarrak eta arabiarrek) gure artean bizi dira, beste batzuek (galegoek eta katalanek) gurekin dituzte aspaldiko harreman indartsuak.

Horra, bada, modu ederra, krisi garai honetan harremanak sortzeko eta estekadura sendoak bilbatzeko, hizkuntza eta kultura giza emaitzak baitira eta gizakiak baitituzte helburu eta xede, aldi hobe baten esperantzan.

Esertzekoak dira, hortaz, Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiari eman dion aukera, beste behin ere Etxepareren testua mundu zabalean hedatzeko eta barreiatzeko. Era berean, eskerrak eman behar zaizkie *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren olerkiak itzuli dituztenei eta *last but not least*, Xabier Kintanaren





EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

eginahalak azpimarratu behar dira, Euskaltzaindiaren idazkariak egoki eta artez moldatu baitu euskal klasiko honen argitaraldi berria.

Izan bedi honako hau berebiziko akuilua eta oinarria, etorkizunean ere, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak Etxepareren lana goratu eta munduratu dezaten, mintzaira ugari eta herri askoren artean.

Hainbatez, gaur, ekitaldi honen bidez, Etxepare, euskara eta euskal kultura unibertsalago egingo dugu !

PALABRAS DE ANDRES URRUTIA, PRESIDENTE DE EUSKALTZAINDIA  
(TRADUCCIÓN)

*Una vez más, concita nuestra atención el primer libro impreso en euskera, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545). Como en una ocasión anterior, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca han unido sus esfuerzos para que este texto clásico de la literatura vasca esté al alcance no solo de los lectores vascos, sino de otros muchos, aquí y a lo largo del mundo, de modo que cada uno de ellos pueda comprenderlo en su propia lengua.*

*En efecto, por medio de esta colaboración, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca cumplen aquel deseo que el propio Etxepare, autor del libro, expresó hace cuatro siglos y medio, para que el euskera saliera al mundo, Euskara, jalgi hadi mundura!*

*Es evidente que para esto ocurra ha sido imprescindible la colaboración entre ambas instituciones para verter los versos de Etxepare del euskera a las demás lenguas.*

*Dicho esto, es necesario precisar que a las lenguas que se incluyeron en la edición anterior (castellano, inglés, francés, alemán e italiano) se han unido ahora el gallego y el catalán, cooficiales en sus respectivos territorios e igualmente las lenguas de pueblos cuya presencia en Euskal Herria se ha acrecentado estos últimos años (rumano, chino, quechua y árabe).*

*Etxepare nos habló hace cuatro siglos y medio. Etxepare nos hablará hoy en lenguas diferentes. Por eso, hay que destacar en esta edición el papel que han jugado los traductores y expertos que han trabajado en cada lengua, para lograr la glossolalia o don de lenguas que permite que cada uno de los lectores pueda entender a Etxepare en su propio idioma.*





EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

*Quiero subrayar, no obstante, una perspectiva diferente, ya que hoy el texto de Etxepare se ofrece por primera vez a los hablantes de una serie de comunidades lingüísticas. Queremos que de esta forma sepan de nuestra lengua y cultura y la hagan más suya. Unos (rumanos, chinos, árabes y quichuas) trabajan con nosotros, codo a codo, en el quehacer diario de este país. Otros, como los gallegos y catalanes, están unidos a nosotros por lazos fraternales y anhelos culturales comunes.*

*Este es, aun en tiempos duros, un modo de unir más a los pueblos, que, afectados por la crisis, pueden encontrar en el compartir de sus lenguas y culturas, una ventana para la esperanza.*

*Es de agradecer la oportunidad que el Parlamento Vasco ha concedido a Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca para que ésta pueda, una vez más, difundir y extender por el mundo el texto de Etxepare y, de igual modo, el trabajo de los traductores y expertos de cada lengua, sin olvidar la labor minuciosa y exacta que ha realizado Xabier Kintana, secretario de Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, a la hora de preparar la edición y coordinar los textos y los traductores de cada lengua.*

*Esperemos que esta edición sea, como la anterior, la base y el estímulo para que en un futuro próximo, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca continúen el trabajo de difusión de la obra de Etxepare entre los pueblos y las lenguas del mundo.*

*Hoy, sin lugar a dudas, ¡hemos hecho un poco más universal a Etxepare!*





EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

## BAKARTXO TEJERIA LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIAREN HITZALDIA

Euskararen egunean, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak euskararen eta hizkuntza aniztasunaren aldarria egin nahi izan dugu eta egin dugu. Hori da, besteak beste, hemen aurkezten dugun Linguae Vasconum Primitiae-ren bertsio eleanitz berri honen esan nahia.

Hizkuntzen aniztasuna gizakiaren eta gizateriaren ezaugarria da. Eta ona da. Babel mundua da eta mundu horretan euskarak bere tokia du. *“Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean,* Koldo Mitxelenak erakutsi zigun legez. Eta bide horretan, euskararekiko gure konpromisoa berretsi nahi dugu.

Hamaika ele, hizkuntza ugari, hamabi guztira mintzatu ditugu ekitaldi honetan. Euskara, gaztelania eta frantsesa... euskara eta hemengo erdarak entzun ditugu eta horiekin batera ingelesa, alemanera, italiara, katalanera, galegoa, errumaniera, arabiera, txinera eta kitxuera mintzatu dira.

Bost kontinenteetako hizkuntzak, erdara guzti hauek munduko mintzairak dira. Eta gure arteko hizkuntzak, ere. Euskararen herrian mintzatzen direnak. Ez agian hemengoak baina bai “hemengoenak”, gure jendearenak, euskal herritarrenak alegia.

Linguae vasconum primitiae, ‘Euskaldunen hizkuntzaren hasikinak’ dio latinez tituluak. Eta, hasiera izan zen, esperantzaz betetako bidean emandako lehen pausoa, epilogoan latinez Bernat Etxeparek adierazi zuen moduan: hasiera xume honek duela fortuna hobea.

Euskara eta euskal kultura munduko lau haizetara zabaltzeko beharra ikusi zuen XVI. mendean musde Etxeparek. Ia bost mende geroago, planeta auzo bilakatu den honetan, euskara munduan da eta mundua gurean. Eta guk, XXI. mendeko euskaldunok, gure kultura eta hizkuntza munduan eta zabalik, aske nahi ditugu. Euskara gurean eta munduan nahi dugu. Mahatma Gandhik esan zuena betetzea gura dugu: “Ez dut nire etxea leihoak itxirik eta harresiz inguraturik nahi. Mundu osoko kulturak etxeko laratz gainetik lau haizetetatik libre jotzea gura nuke, baina nire laratzeko sua itzali gabe”. Jakinda beti ere, zabaltzen ditugun leihoak eta atearak ez direla norabide bakarrekoak, gurea eman eta bestetatik jaso nahi baitugu.

Egin dezagun, bada, gure esku baitago. Mintza dezagun, zabal dezagun euskara. Asko egin dugu, asko aurreratu dugu, baina askoz gehiago dago egiteko, euskararen normalizazio bidean eta euskararekiko konpromisoan. Euskararen Nazioarteko Eguna baliatu nahi dugu konpromisoa berritzeko. Ahantzi gabe euskarak 365 egun dituela urtean eta euskararen eta euskal kulturaren joko zelai







EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

nagusia eta erabakigarriena etxean dugula, Euskal Herrian, hemen irabazi behar baitugu, eraiki behar baitugu gure hizkuntzaren geroa.

Mundua bat da eta egun euskarak bezala gizakiok mundua dugu plaza. Beraz eta Kontrapasek diona kanta eta gauzatu dezagun:

Euskara jalgi hadi kanpora!  
Euskara jalgi hadi plazara!  
Euskara jalgi hadi dantzara!  
Euskara habil mundu guzira!

DISCURSO DE **BAKARTXO TEJERIA**, PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO  
(TRADUCCIÓN)

*En el día del Euskera, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia hemos querido reivindicar –y así lo hemos hecho- el euskera y la pluralidad de lenguas. Ese es, entre otros, el objetivo de esta nueva versión plurilingüe de Linguae Vasconum Primitiae que hemos presentado hoy.*

*La pluralidad de lenguas es una característica de la humanidad y de la propia condición humana. Babel es el mundo; y en ese mundo, el euskera tiene su lugar. “Así como nuestro Pueblo necesita su sitio entre los pueblos del mundo, el euskera también ha de encontrar su sitio entre las lenguas”, nos enseñó Koldo Mitxelena. Y en esa línea, queremos renovar, también, nuestro compromiso con el euskera.*

*En este acto hemos hablado en múltiples lenguas, en muy diversos idiomas; doce, en total. Hemos escuchado euskera y castellano y francés... el euskera y nuestros erderas. Y con ellas, también se ha hablado en inglés, alemán, italiano, catalán, gallego, rumano, árabe, chino y quechua.*

*Lenguas de cinco continentes, idiomas que se hablan en todo el mundo; también entre nosotros. Lenguas habladas hoy en el país del euskera. Lenguas que, sin ser “de aquí”, viven entre nosotros y lo son de nuestra gente, de las ciudadanas y ciudadanos vascos.*

*Linguae vasconum primitiae, ‘Las primicias de la lengua vasca’, reza el título en latín. Ese fue el comienzo, el primer paso de un camino lleno de esperanza. Tal y como explicitó Bernard Etxepare en el epílogo en latín: que este modesto principio tenga más feliz continuación.*





EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

*En el siglo XVI, Bernard Etxepare veía la necesidad de que el euskera y la cultura vasca se abrieran al mundo. Casi cinco siglos después, en este mundo globalizado, el euskera está en el mundo y el mundo forma parte de nosotros. Y nosotros, los euskaldunes del siglo XXI, queremos que nuestra lengua y nuestra cultura estén inmersas en el mundo globalizado; las queremos libres y abiertas al mundo. Queremos que se cumpla lo que dijo Mahatma Gandhi: “No quiero mi casa amurallada por todos lados ni mis ventanas selladas. Yo quiero que las culturas de todo el mundo soplen sobre mi hogar tan libremente como sea posible, pero me niego a ser barrido por ninguna de ellas”. Siendo conscientes, además, de que las ventanas y las puertas no se abren en una única dirección; queremos ofrecer lo nuestro y recibir lo de los demás.*

*Hagámoslo, porque está en nuestra mano. Hablemos y abramos el euskera. En lo relativo a la normalización del euskera y en el compromiso con nuestra lengua, hemos hecho mucho, hemos avanzado mucho, pero queda mucho más por hacer. Queremos valernos del Día Internacional del Euskera para renovar nuestro compromiso con nuestra lengua. Todo ello sin olvidar que el euskera tiene 365 días al año, y que el campo de juego principal y determinante se encuentra en casa, en Euskal Herria, porque aquí tenemos que ganar, aquí tenemos que construir el futuro del euskera.*

*Hay un único mundo y el euskera –al igual que el ser humano- tiene su hogar en ese mundo. Así que cantemos y hagamos realidad lo que dice la letra de Contrapás:*

*¡Euskera, sal al exterior!*

*¡Euskera, sal a la plaza!*

*¡Euskera, sal a bailar!*

*¡Euskera, sal al mundo!*

